

Komunitaterako hazitegirik nahi?

Baratze-parke guztietan aurki genezake landarea etxean lortzea gogoko duen eta eskarmentu handia duen edo trebea den norbait; batez ere, orain ereiten den eta hotzak kaltetzen dituen bezalako landareak: tomatea eta piperra, adibidez.

Baina, zergatik ez dugu jakituria hori baliatuko komunitaterako hazitegiak eginez eta ehunka landare modu errazean eta merkeagoan lortzeko aukera ematen digunean?

Udaberrirako behin-behineko hazitegi bat egitea proposatzen dizuegu hotzetik babesa eta lur hezea behar duten landareak lortzeko. Horretarako, egokiena “azpi beroa” deritzon hazitegia prestatuko dugu. Gure baserrietan ohikoa izaten da horrelako hazitegiak baserriko hormarik eguzkitsuenaren aurrean egitea; horrela, simaurra hartzitzerakoan sortzen duen beroa baliatzen da landare gazteenak berotzeko.

Hazitegi hau egiteko lastozko fardo ilara bat jarriko dugu inguruko esparru itxi bat sortuz. Jarraian, simaur freskoa gehituko diogu esparru honi 15-20cmko geruza sortuz eta ondo estutuz. Batzuek zaldi-simaurra erabiltzen dute (zaldiena, mandoena eta astoena) duen zelulosa kopuruagatik modu azkarrean bero handia ematen duelako. Ondoren, ondo deskonposatutako 5 cm-ko konpost-geruza bat zabaldu eta beste 2cmko konpost zaharrarekin egindako geruza gehituko diogu. Haziak barreiatu ondoren, oso hartzituta dagoen konpost geruza fin batekin estaliko dugu. Hazitegia prest izango dugu kristal batekin edo plastikoko batekin estali eta harriekin edo adreiluekin finkatzen dugunean.

Behin hazitegia prestatu ondoren, gure barazkiak ereiten eta zaintzen hasiko gara.

Un semillero comunitario

En todos los Baratzeko Parkea existe algún veterano o manitas que suele gustar de obtener su propia planta en casa, sobre todo de cultivos como el tomate o el pimiento que suelen sembrar a partir de ahora y que les afecta el frío. Pero ¿por qué no aprovechar esa sabiduría y realizar semilleros comunitarios para obtener cientos de plantas de una forma sencilla y económica.

Os proponemos un semillero temporal para primavera y producir plantas que en nuestras latitudes requieren protección frente al frío exterior y de un suelo cálido en épocas que no suelen prevalecer estas condiciones. Para ello lo ideal suele ser preparar un semillero denominado de cama caliente. Tradicionalmente en nuestros caseríos se ha realizado frente a la pared más soleada del caserío este tipo de semillero que aprovecha el calor generado por la fermentación del estiércol para dar calor a las plantas jóvenes.

Para ejecutar este semillero colocaremos una hilera de pacas de pajas creando un recinto perimetral cerrado. A continuación realizamos el aporte de un estiércol fresco al fondo del recinto formando una capa de 15-20cm que luego se aprieta al máximo. Algunos suelen optar por el estiércol de equinos (caballos, mulos y asnos) porque suele dar una fuente elevada y rápida de calor dado el alto contenido de celulosa que suelen llevar. A continuación se extiende una capa de unos 5 cm de compost muy bien descompuesto sobre la cual añadimos 2cm de un compost viejo. Una vez esparcidas las semillas las cubrimos con una capa fina de compost muy fermentado. El semillero estará acabado cuando lo cubramos con un cristal o plástico que sujetaremos con piedras o ladrillos.

Una vez que tengamos preparado el semillero podremos empezar a sembrar nuestras hortalizas y cuidarlas.